

IZARRETAKO



PIRATAK

ONTZIRATU
GUREKIN
ABENTURA
HONETARA!



Polizoiak!

JIM LADD

desclée

IZARRETAKO PIRATAK

Polizoia!

Samek teleskopioa biratu du, espazio-ontziari jarraitzeko. Ontzia galeoi beltz izugarria da. Belak lau haizetara daramatza eta, ontziaren popan izarretara zabalik, zilarrezko zutoin bat dauka. Samek irribarre egin du mastaren puntan bandera zuri-beltza ikusi duenean: izarretako piratak!





IZARRETAKO  PIRATAK

Polizoa!

JIM LADD



Ilustrazioak
Benji Davies

Itzulpena
Miren Ibarluzea

desclée



© Hothouse Fiction 2013
© Ilustrazioak: Benji Davies 2013



Jatorrizko izenburua:
Stowaway!
Space Pirates 1

Itzulpena © 2018 Miren Ibarluzea

© 2018, DESCLÉE DE BROUWER S.A.

Henao, 6 - Bilbao
Tlf.: 94 423 30 45
www.desclee.eus
www.edesclee.com

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein eratako berregintza, komunikazio publiko eta moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke (Zigor Kodearen 270. artikulua eta hurrengoak).

CEDRO erakundeak babesten ditu aipatu eskubide horiek.



ISBN: 978-84-330-2983-6
Legezko gordailua: BI-719-2018
Inprimatzailea: Grafo S.A. - Basauri



KOMETA KAPITAINA

Nor da nor
APOLO ALAI
ontzian

SAM
IZARBERRI



KAKO
ETA
TAKO



PATXO

Nor da nor
GRABITATEAREN MENDEKUA
ontzian



ZAKUTS



MARRO



ZULO BELTZ
BIZARTSU





1. kapituluu
TALKA



IZARRETAKO PIRATAK


Teleskopiotik espaziora begira dagoela, Sam Izarberrik espazio-ontzietako suziriak ikusi ditu gau ilunean dirdiraka, ipurtargiak balira bezala.

—Zenbat planeta daude Fudo sisteman? —galdetu dio Argon Maisuak, irakasle holografikoak.

Samek teleskopioaren *zoo*ma sakatu du, urrutiko konstelazioa ikusteko. Baina, bat-batean, espazio-ontzi bat sartu da bere planetaren atmosferan. Argon Maisua begira ez duela eta, Samek biratu egin du teleskopioa, ontziari jarraitzeko. Gurasoek aspaldi behar zuten etxean, baina espazio-ontzi hori ez da euren zilarrezko gurutze-ontzi dotorea: galeoi beltz izugarri bat da, belak lau haizetara dakartzana. Urrezko idi-begietatik kanoi-mutur erraldoiak ageri zaizkio, eta ontziaren popan, izarretara zabalik, zilarrezko zutoin bat dauka. Samek irribarre egin du mastaren puntan bandera zuri-beltza ikusi duenean. Zalantzak argitu ditu: izarretako piratak!

—Sam? —galdetu dio Argon Maisuak berriz—. Zenbat planeta daude?

—Zera... hiru? —bota du Samek.



—Oso ondo! —esan du Argonek, beso gardena jaso eta urrutiko munduak seinalatuz.

Amatxok aldatu egin du berriz holo-irakaslearen konfigurazioa “humanoide” modura; beraz, bi beso eta bi hanka ditu, Samek bezalaxe. Edonola ere, programazio unibertsala dauka, eta irakasten dituen espezie guztien itxura har dezake. Samek oso gustuko du Argon Maisuak hiru buruko arrainoide itxura hartzen duenean; amatxok, ordea, uste du lerre holografikoak semeari arreta galarazten diola.



—Gloton 5 oso ezaguna da marmeladazko mehatzeak daudelako bertan. Unibertsoan jaten den marmeladaren erdia planeta gelatinakara horretatik dator. Zenbat eta gehiago ikertu —dio Argon Maisuak, betaurrekoak ordenagailuak sortutako sudurrean doitzen dituen bitartean—, orduan eta argiago dago espazioa planeta miragarriz beteta dagoela.

—Bai horixe! —egin du hasperen Samek—. Tamalez, gure planeta hau ez da horietako bat. P-Sezov 8 haitz koskor bat baino ez da.

Ez da kontua puzten ari: planeta harri urdinez estalita dago oso-osorik, eta ez da bertan ezer hazten. Ez dago ez animaliarik, ez landarerik. Bi lekutan baino ezin da jendea bizi, eta toki horietako bat gurasoen laborategia da.

Aplikazioak fitxategi egokia hautatu bitartean, holo-irakasleak dar-dar egin du.

—Hain zuzen ere, funtzio berezia dauka P-Sezov 8 planetak: inguruko planeta liluragarriak esploratzera abiatzeko kokapen estrategikoa du.

Samek begiak biribilkatu ditu, eta baietz egin du buruarekin. Horrexegatik jarri dute bertan



Polizoia!



laborategia gurasoek, Castor eta Stella Izarberrik: leku aproposa da kosmosean bidaiatu eta landare bizidunen laginak bildu ostean te-ordurako etxeratzeko moduan egoteko. Sam sarri joan ohi da eurekin. Baina lantzean, gaur bezalatsu, gurasoak tematu egiten dira Sam laborategian gera dadin eta eskolako lanetan aurrera egin dezan.

Eramateko eta eramateko erregutu die Samek, Pretoid Alpha planetako goroldio hotzaren bila atera direlako, eta Samek beti nahi izan duelako maskota bat. Ez da halakorik gertatu: holo-irakaslea programatu eta eskolak bukatu baino lehen itzuliko direla esan diote.

—Noski —jarraitu du Argonek—, P-Sezov 8 oso portu ezaguna da izarretako piratentzat, kokapen ezin hobeia da galaxiako erasoetara, sarekadetara eta altxor-biltzeko bidaietara abiatzeko.

Izarretako piraten ontzia oso gertu dago, Samek argi entzuten du laborategiaren gainean hegaka. Leihotik begiratu du: han doa ontzia planetaren beste aldera. Ontziaren laser-izpiek zerua erdi-bitu dute: suak piztu dira han-hor-hemen. Arreta handia jarriz gero, Samek borroka-hotsak ere

entzun ditzake, bai eta izarretako pirata-kanten doinuak ere. Badoa ontzia Pirataportura bidean.

Samek beti joan nahi izan du bertara izarretako piratak gertutik ikustera, baina gurasoek debekatuta diote planetaren alde hartara gerturatzeari.

—Izarretako piratak arriskutsuak dira! —tematzen da ama—. Ez da dena pirata-kanta, abentura eta bola-jokoa, badakizu. Gerra, lapurreta eta heriotza ere badira.

Beraz, Sam Esne Bidea galaxiaren alderdi honetako planetarik aspergarrienean katigatuta dago, ez diotelako uzten bertako lekurik interesgarrienera joaten.

Hasperenka, Samek ikusmiratik galdu du piraten ontzia. Baina, begirada leihotik kentzean dagoela, zerbaitek piztu dio arreta: Pirataportu gaineko zeruan, *flash* eta izpi artean, bada besteak baino dirdiratsuago ageritako argi-printza bat. Zenbat eta luzeago begiratu argiari, orduan eta handiago bihurtzen da. Zer da? Txikiegia da ontzi bat izateko, bizkorregi mugitzen da...

Orduan konturatu da Sam printza ez dela gero eta handiagoa: gero eta gertuago dago, eta laborategira dator zuzen-zuzenean.

—Sam, entzuten did... meeh! —Argonen ahotza hots kirrinkari bihurtu da. Samek jauzi egin du lurrera, eta mahaipean gorde du bere burua, talkaren zain gorputza bil-bil eginda. Ez du bere bihotza besterik entzuten, taup-taup, paparretik atera beharrean. Orduan, argi distiratsu batek

